

2004.ko urtarrilla

1

Azterketak

EAE ETA NAFARROAKO 2004. URTERAKO AURREKONTUEN BALORAZIOA

Mikel Noval - Julene Gabiola
ELAko Azterketa Bulegoa

Non zer

EUSKO JAURLARITZAK 2004RAKO AURKEZTUTAKO AURREKONTU PROIEKTUAREN LEHENENGO AZTERKETA3

Sarrera	3
1. Eusko Jaurlaritzak eutsi egiten dio gastuak ekonomian duen pisua murrizteko joerari	3
2. Eusko Jaurlaritzak superavitaz itxi ditu azken ekitaldiak	5
3. Zor publikoaren beherakada handia	6
4. Aurrekontu proiektuaren sail garrantzitsuenak	9
5. Hezkuntzako gastu publikoa murriztu egiten da	10
6. Osasuneko gastua gerarazi egiten da	13
7. Oso zuzkidura murrizta etxebizitzarako	15
8. Garraioak eta herrilanak. Euskal «Y» trenbide-sare ezegokia	17
9. Pertsona asko pobrezian uzten dituen oinarritzko errenta	18
10. Gizarte larrialdietarako laguntza urriak izoztu egiten dira (GLL)	18
11. Energia politika: erakunde pribatuentzako zuzkidura	19
12. Lurraldearen antolamendua eta ingurumena	19
13. Euskararentzako gastu publikoa	20
14. Ondorioak	20

NAFARROAKO GOBERNUAK 2004.RAKO AURKEZTUTAKO AURREKONTU PROIEKTUAREN BALORAZIOA25

Sarrera	25
1. Aurrekontu proiektua	26
2. Sarrerak	29
3. Osasun saila	33
4. Hezkuntzak gastu publikoa	34
5. Ingurumen, lurralde antolamendu eta etxebizitza saila	37
6. Gizarte-sail batzuentzako hornidurak	38
7. Estatuarekiko hitzarmena	41
8. Ondorioak	41



Estudios-Azterketak Saila 1. zenbakia
Bilbao, 2004ko urtarrila

Eusko Jaurlaritzak 2004rako aurkeztutako aurrekontu proiektuaren lehenengo azterketa

SARRERA

Eusko Jaurlaritzak 2004rako aurkeztutako aurrekontuak onartu ez badira ere, garrantzitsua deritzogu horiek aztertzeari, alde bate-tik, aurkeztutako proiektuak ezkututzen duen gizarte-eredua ezagu-tu eta baloratu egin behar delako, eta bestetik, gobernuek aurre-kontuak onartu nahiz ez, aurrekontua kudeatzeko marjina handia dagoela suma daitekeelako, aurreko urteetako praktikaren ondo-rioz; beraz, proiektu gisa aurkeztu den honek Eusko Jaurlaritzak 2004an izango duen jardunbidearen nondik-norakoa markatzen du, zalantzarik gabe.

Sarrera hau amaitzeko, aipatu behar dugu erabiliko dugun informazioa honako hauetan oinarriturik dagoela:

- Eusko Jaurlaritzak 2002an eta aurreko urteetan benetan egin duen gastua.
- Eusko Jaurlaritzak 2004rako aurrekontu proiektuarekin bate-ra aurkeztu duen 2003ko likidazio-aurreikuspenean gastu-tzat eta sarreratzat islatu duena.
- 2004rako aurrekontu-proiektuan jasotakoa.

1. EUSKO JAURLARITZAK EUTSI EGITEN DIO GASTUAK EKONOMIAN DUEN PISUA MURRIZTEKO JOERARI


Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako proiektuaren arabera, aurre-kontua 6.661,6 milioi eurokoa (1,11 bilioi pezetakoa) izango da, hau da, 2003ko likidazio-aurreikuspenean jasotakoa baino %5,49 han-diagoa.

Jaurlaritzak berak esandakoaren arabera, 2004rako aurreikusitako BPGak %5,68ko igoera izango duenez –Jaurlaritzaren gastua baino igoera handiago samarra–, aurten gastu publikoak BPGan izango duen pisua txikixeagoa izango da, 2003an BPGaren %13,24 izatetik 2004an %13,21 izatera igaroko da eta.

Era horretan, eutsi egiten zaio Jaurlaritzaren gastuari ekonomian dagokion ehunekoak murrizteko joerari. Berez, azken urteetan, Eusko Jaurlaritzaren gastua EAeko ekonomia hazten dena baino gutxiago handitzen ari da. Horren ondorioz, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, Jaurlaritzak ekonomian duen pisuak murrizteko joera nabaria erakusten du.

Hortaz, 2003ko likidazio-aurreikuspenaren arabera, Jaurlaritzaren osoko gastua ekitaldi horretako BPGaren %13,24koa izango da, alegia, 2002an BPGari egokitu zitzaion %13,41a baino ia bi hamarren txikiagoa.

**Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoaren pistua
BPGaren %, 1998-2004**



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

Aurrekontu-proiektua aurkezten denean, aurrekontu hedakorrak direla, ekonomiaren hazkundera laguntzen dutela eta abar esan ohi du Jaurlaritzak. Hala ere, errealitatea oso urrun dago diskurtso ofizial horretatik. Aurrekontuen likidazioak (hau da, benetan gastatu denaren azterketak) urtero-urtero erakusten digunez, politika murriztailea da eta bat dator Europako Batasunean Egonkortasun Ituna deritzonaren bidez ezartzen saiatu diren ildo neoliberalarekin.

2. EUSKO JAURLARITZAK SUPERAVITAZ ITXI DITU AZKEN EKITALDIAK

a) 2002ko eta 2003ko ekitaldietako bilakaera.

Eusko Jaurlaritzak superabitatez itxi ditu azken ekitaldiak. Izan ere, 2002an, 240,5 milioi euroko (hots, 40.000 milioi pezetakoa) superabitate izan zuen, hau da, urte horretako BPGaren %0,53aren besteko superabitate. Jaurlaritzak berak 2003rako aurreikutzutako aurreikuspenak eutsi egiten dio superabitateko egoerari, nahiz eta kasu horretan 49,9 milioi eurokoa (BPGaren %0,1ekoa) izan.

Eusko Legebiltzarrean 2003rako onartutako aurrekontuak 10,3 milioi euroko defizita jasotzen zuen ekitaldi horretarako, 2002ko superabitate 47,7 milioi euroa izango zela estimatzen zelarik. 2002ko datu errealek eta 2003rako aurreikuspenak arrazoiak ematen diote ELAri, 2003ko errealitatea, defizitekoa barik, superabitatekoa izango zela esan genuen eta. Dena den, urte horretako superabitatearen benetako maila 2003ko likidazioa ezagutzeko jakingo dugu. 2002an gertatu zenez, oso litekeena da superabitate orain estimatutako 49,9 milioi euroak baino nabarmenki handiagoa izatea.

**Eusko Jaurlaritzaren superabitate 2002an eta 2003an
(milioi eurotan)**

	Likidazioa 2002	Aurreikuspena 2003
SARRERAK	6.258,0	6.365,0
GASTUAK	6.026,3	6.315,2
EKITALDIKO SUPERABITATE	231,7	49,9
AURREKO EKITALDIETAKO SUPERABITATE	8,8	0
SUPERABITATE GUZTIRA	240,5	49,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Edonola ere, oso deigarria da Eusko Jaurlaritzaren joera ekitaldiak superabitatekin ixtekoa izatea, batez ere, estali gabe geratzen ari diren premia garrantzitsuak ikusita, hala nola etxebizitza, oinarritzko errenta, gizarte-larrialdietarako laguntza, 0-3 urtekoen tartea, osasun arloko zenbait prestazio, ingurumenaren zaintza..., horiek guztiak Jaurlaritzaren zuzeneko eskumen dira eta.

Beraz, Eusko Jaurlaritza alde batera uzten ari da pertsonen bizi-modu duina bermatzeko betebeharrak, oinarritzko beharrezkoen estaldura pertsona bakoitzaren ahalbide ekonomikoen menpe

uzten baitu, superabita lortzen duelarik. Guztiz onartezina, guk uste.

Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak berak kritikatu du zero defizitaren edo superabitaren politika... Aznarren Gobernuaren kasuan! Hobe luke kritika horrekiko koherentziaz jokatzea eta gizarte-gastua estaltzeari beste gobernu batzuen kasuan kritikatzan duen superabita lortzeari baino lehentasun handiagoa eman.

b) 2004ko aurrekontu-proiektua.

2004an, antzeko zerbait gertatzen da berriro. Zehazki, 2004rako aurkeztu duen aurrekontuan, Jaurlaritzak defizitik ez izatea aurreikusten du (milioi erdi euro baino gutxiagoko defizita aurreikusten du, hau da, defizit hutsala). Gainera, ziurrenik, ekitaldiaren amaieran superabita izango du, defizita barik (azken urteetan jazo den bezalaxe).

3. ZOR PUBLIKOAREN BEHERAKADA HANDIA

a) 2002ko eta 2003ko bilakaera.

Azken urteetan ikusi dugunez, Eusko Jaurlaritzak ez du zor publikorik jaulki, eta, aldi berean, amortizatu egin du lehendik zeukana. Horrek murrizketa nabaria ekarri dio Jaurlaritzaren zor biziaren (edo ordaindu gabeko zorraren) pisuari.

Iaz 2003ko aurrekontuei buruz egindako azterketan jadanik, zorra pribatizatzeke joera hartu izana kritikatu genuen, zorra jaulki beharrean, finantza-erakunderen batekin (ez dakigu zeinekin edo zeintzuekin) kreditu-linea ireki zen eta. Gainera, horrelako kreditu-lineak irekitzen direnean, zor publiko bizitzat islatzen dira kontabilitatean, kreditu-linearen gehienezko erabilpen-mugan (nahiz eta baliabideok erabili ez); horrek paradoxa dakar, kontabilitatean islatzen den zor publikoa benetan erabiltzen ari dena baino handiagoa delako.


Horrekin batera, ez dugu ahaztu behar zor-jaulkipenari buruzko 2003rako aurreikuspenean 390 milioi euroko obligazio-jaulkipena egitea jaso bazen ere, jaulkipen hori ez dela egin.

Ondorioz, 2003ko amaieran Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako zor bizia 1.804,7 milioi eurokoa (BPGaren %3,78) bada ere, horretatik 996,9 milioi (guztiaren %55,2) jaulkiko ez diren obligazioei eta

itxura guztien arabera erabiliko ez diren kreditu-linea horiei dagokie.

Zor biziak azken urteetan izan duen bilakaera aztertzean ikus dezakegunez, 1998an BPGaren %6,09 izatetik 2003an %3,78 izatera igaro da (edo, 2003ko kasuan, %1,69ra, jaulkiko ez diren obligazioak eta kreditu-linea horiek sartzen ez baditugu). Dena den, aipatutako urteetan, Jaurlaritzaren zor publikoak jaitsiera harrigarria izan duela egiazta daiteke.

**Eusko Jaurlaritzaren zor biziaren pisuaren bilakaera
BPGaren %. 1998-2003**



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

Atal honetan, defizit edo superabitari buruzko atalean bezala, kontuan hartu behar dugu Jaurlaritzak duela urtebe 2003ko aurrekontuan jasotako aurreikuspenak (urte horretarako zor publikoaren jaulkipena) ez direla bete, gure azterketan aurreikusi genuen bezala.

2003ko ekitaldian superabitarekin edo zorrarekin gertatutakoak argi erakusten du onartzen diren aurrekontuak, askotan, makillatuta daudela, nahi den irudia agerrarazteko, nahiz eta errealitatea oso bestelakoa izan. Era berean, agerian geratzen da zelako marjina handia duten aurrekontuen kudeaketan, aurrekontuaren benetako gauzpena eta bertan onartutakoa oso gauza ezberdinak izan daitezten. Hori argi ikusi ahal izan genuen Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrean aurrekontuak onartu ezin izan zituen urteetan:

aurrekontuak gauzatzean aldaketa nabarmenak egin zituen onartutako azken aurrekontuen aldean.

b) 2004ko aurrekontu-proiektua.

2004rako, 394,3 milioi pezetako zorra jaulkitzea aurreikusi du, berriro ere. ELAren iritziz, datu hori ere ez da fidagarria, eta ez dugu uste jaulkipen hori egingo denik. 2003an ez zela jaulki kontuan hartuta eta Jaurlaritzak guztira aurreikusi duen gastuaren gehikuntza txikia ikusita (%5,49ko gehikuntza, 2003ko itxiera-aurreikuspenarekiko), ezin dugu sinetsi 2004an zorra benetan jaulkiko denik, Foru Aldundien bilketa Jaurlaritzaren gastu osoa finantzatzeko nahikoa izango delako.

4. AURREKONTU PROIEKTUAREN SAIL GARRANTZITSUENAK

Eusko Jaurlaritzak 2004rako aurkeztutako aurrekontua.
2003ko ekitaldiarekiko bilakaera.
Guztira eta Jaurlaritzako sailez sail (milioi eurotan)

	2003 aurreikuspena	2004 aurrekontua	03/02 % ald.	04/03 % ald.
Osasuna	2.028,7	2.144,1	4,93	5,69
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa	1.744,3	1.802,9	2,56	3,36
Herrizaingoa	474,7	488,9	-1,39	2,99
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza	343,4	380,2	14,56	10,71
Industri, Merkataritza eta Turismoa	269,7	274,7	-6,29	1,86
Zor Publikoa	224,1	232,6	-20,45	3,83
Kultura	201,4	203,5	3,43	1,04
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	175,8	197,6	5,90	12,41
Garraio eta Herri Lanak	187,3	187,8	0,80	0,26
Ogasun eta Herri Administrazioa	155,6	146,4	-2,62	-5,95
Nekazaritza eta arrantza	185,5	142,5	9,28	-23,18
Besteak	-	-	-	-
GUZTIRA	6.315,2	6.661,6	4,79	5,49
BPG	47.707,0	50.415,8	6,19	5,68

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Jaurlaritzak Osasun Sailari eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zuzentzen die diru gehien. Bi horiei Eusko Jaurlaritzaren gastu osoaren %59,3 dagokie. Jaurlaritzak, askotan, gizartearentzat taxututako aurrekontuak direla frogatzeko erabiltzen du portzentaia hori. Administrazioak bere baiabideen proportzio handi bat gizarte-polituketara bideratzea eta gizarte-gastua handia izatea gauza bera direla sinestarazi nahi du mezu horrek. Baina argudio horrek ez du funtsik. Gizarte-gastua handia edo txikia dela esan ahal izateko, aurrekontu-sail horretara bideratzen dena nahikoa den ala ez, edo Europako Batasuneko herrialdeek batez beste gehiago ala gutxiago zuzentzen duten neurtu behar da. Geroxeago ikusiko dugunez, gizarte-gastua urria edo oso urria da, aurrekontu-sailaren arabera, eta, jakina, Europako Batasunaren azkenean gaude, gizarte-babeserako erabiltzen den aberastasun-zatiari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzak gutxi gastatzen du gizarte-babesean (nahiz eta bere baliabideen zatirik handiena aurrekontu-sail horietara bideratu), eta, gainera, gizarte-gastuak beheranzko joera erakusten du.

5. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA MURRIZTU EGITEN DA

2003an, Hezkuntza Sailaren gastua %2,56 baino ez zen hazi 2002koarekiko. 2004ko aurrekontu-proiektuaren arabera, hezkuntzako gastu publikoaren hazkundera ekonomiarena baino txikiagoa izango da aurrean, 2003rako aurreikusitakoa baino %3,36 gastu handiagoa aurkeztu du eta.

Hezkuntzako gastuaren bilakaera Haur eta Lehen Hezkuntzen atalean eta Bigarren Hezkuntzaren eta Lanbide Heziketarenean jasotzen den igoera urriak eragindakoa da (Haur eta Lehen Hezkuntzak %2,99ko hazkundera du 2004an, 2003an %1,39ko jaitziera izan ondoren, eta Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren atala %1,86 baino ez da hazi 2004an, 2003an %6,29ko murrizketa handia izan eta gero).

Gainera, horrekin batera, estaldura-defizit garrantzitsua dago 0-3 urtekoen hezkuntza-tartean, batez ere, bi urteetara arte. Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzak erabaki duen politika guztiz askieza da, dauden gizarte-beharrizanak estali beharrean, albo batera uzten baititu (egoki deritzen udaletara desbideratzen du horien estaldura, eta horrela, eginkizun hori zentro pribatuek har dezaten sustatzen du).

0-3 urtekoen tartea hezkuntza-sistemaren barruko beste edozein bezala txertatu beharko litzateke, eta Eusko Jaurlaritzak bermatu beharko luke beraren estaldura. Aurrekontuen azterketa honetan ikusten denez, horretarako ahalbide ekonomikoak egon badaude; beraz, gizarte-eskariak eta pertsonen eskubide hori betetzeko borondate politikorik ez dagoela atera behar dugu ondorioz.

Bestalde, Unibertsitaterako gastuak batez bestekoa baino hazkunde handiagoa izan du. Ildo horretan, 2004an %12,41eko igoera izatea aurreikusi da, 2003ko %5,9aren aldean.

Hezkuntza-sistema euskalduntzeko aurrekontu-saila ere batez bestekoaren gainetik hazi da: 2004an, %10,71ko hazkundera erakusten du, 2003ko hazkundera %14,56koa izanik.

Ez dugu ahaztu behar Hezkuntza Sailak Ikerketa ere hartzen duela barne. Ondoko taulan, Ikerketara bideratutako aurrekontu-

sailen bilakaera ikus dezakegu: bai 2003an bai 2004an, Sailaren batez bestekoaren gaintik hazten dira.

**Hezkuntza sailaren gastuaren bilakaera-
2003 eta 2004. Guztira eta hezkuntza-tarteka**

	03/02 % ald.	04/03 % ald.
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa	2,56	3,36
Haur eta Lehen Hezkuntza	-1,39	2,99
Bigarren M. Hezkuntza, Konpents. eta Lanbide Heziketa	-6,29	1,86
Unibertsitateko Irakaskuntza	5,90	12,41
Hezkuntza sistemaren euskalduntzea	14,56	10,71
Ikerketa	4,93	5,69

Iturria: Eusko Jaurlaritza


Hezkuntzako gastu publikoari erreparatuta, urtez urte murrizten ari dela ikus dezakegu: 2001ean, hezkuntzako gastu publikoa BPGaren %3,68koa izan zen, eta %3,77ra igo zen 2002an (lanpostu-mailako osagarriari buruzko epai bat bete behar izan zelako). Ondoren, ehuneko berrero jaitsi da, 2003an %3,64ra eta 2004an %3,56ra, hain zuzen ere.

**Hezkuntzako gastu publikoari dagokion BPG zatia (%).
2002-2004**

	2001	2002	2003	2004
HEZKUNTZA PUBLIKOA GUZTIRA	3,68	3,77	3,64	3,56
Haur eta Lehen Hezkuntza	1,10	1,24	1,15	1,11
Bigarren M. Hezkuntza, Konpents. eta Lanbide Heziketa	1,43	1,60	1,50	1,48
Unibertsitateko Irakaskuntza	0,40	0,45	0,45	0,42
Hezkuntza sistemaren euskalduntzea	0,11	0,08	0,09	0,09

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzaren hazkuntza-gastuaren pisua.
EAE, 2001-2004



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

Azkenik, gastu publikoak EAEn eta EBn duen pisua erkatuko dugu. Daukagun azken informazioa 1999koa da, horretan Luxenburgeko datuak falta bazaizkigu ere. Informazio horren arabera, EAEn, Hezkuntza publikoa zerrendako bigarrena da azkenekotik hasita (BPGaren %3,95), eta Greziakoa (%3,6) baino ez du atzean. Hezkuntzak Suedian erakusten du pisurik handiena (BPGaren %6,45); horren ehunekoa EAEkoa baino 1,8 bider handiagoa da.

Hezkuntzako gastu publikoa (BPGaren %). EB. 1999

Suedia	6,45
Danimarka	6,44
Austria	6,01
Frantzia	5,85
Finlandia	5,71
Portugal	5,61
Beljika	5,26
Erresuma B.	4,44
Italia	4,43
Espainia	4,41
Alemania	4,33
Holanda	4,29
Irlanda	4,14
EAE	3,95
Grezia	3,6

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, OCDEn, Eustaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

6. OSASUNeko GASTUA GERARAZI EGITEN DA

Duela aste batzuk Osakidetzak datozen urteetarako taxututako Plan Estrategikoa aurkeztu zen. Plana justifikatzeko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko arduradunek behin eta berriro errepikatu dute osasuneko gastua ekonomiaren ginetik hazten ari dela azken urteetan, eta "Guztiontzako sanitatea, denetarako sanitatea barik" ikurritzari jarraitzen dion osasun-sistema lortu behar dela.

Osasuneko gastua erritmo horietan hazten ari dena erabat faltsua da, aurrekontuak eta gizarte-gastua aztertu dugun guztietan frogatu dugunez. Berriro ere, 2003rako aurreikusitako aurrekontu-likidazioan eta 2004rako aurrekontu-proiektuan agertzen diren datuek gezurtatu egiten dituzte baieztapen horiek.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzak osasunean egindako gastu publikoa %4,93 igo zen 2003an 2002koarekiko, eta 2004an %5,69 haztea aurreikusten da.

Osasunako gastu publikoa EAEn. 2003, 2004

	2003	2004
Osasuna	4,93	5,69
Farmazia eta laguntza ortoprotesikoa	7,08	7,15

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Beraz, osasuneko gastu publikoa ekonomiaren azpitik hazi da 2003an, eta 2004an portzentaia berean igotzea aurreikusten da. Izan ere, 2004an, BPGaren %4,25 bideratuko da osasuneko gastu publiko, 2002an xede horretara benetan bideratu zen %4,3aren aldean.


Osasuneko gastu publikoaren bilakaeraz mintzatzean maizen aipatzen diren alderdietako bat farmaziako gastuaren bilakaera da. Ondoko tauletan ikus daitekeenez, egia da farmaziako gastua osasuneko gastu osoaren gaineratik eta ekonomia osoa hazten denaren gaineratik hazten dena, baina neurritz. Ildo horretan, 2002an, gastu hori BPGaren %0,90ekoa izan zen, eta 2004an, %0,90ekoa izango da. Beraz, ez dirudi osasun arloko estaldurak aipatzean erakutsi ohi den alarmismoa zentzuzkoa denik.

Farmaziako eta prestazio ortoprotesikoko gastu publiko EAEn, (BPGaren %) 2002-2004

	2002	2003	2004
Farmazia eta laguntza ortoprotesikoa	0,90	0,91	0,92

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.


Eusko Jaurlaritzaren osasun gastuaren pisua. EAE 2001-2004.



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta

Osasuneko gastua neurritz kanpo hazten ari dela diotenak gezurretan dabilta: horien asmo bakarra osasun-sistema publikoaren estaldurak murriztea eta osasun pribatua zabaltzea da, hau da, osasun-etzaldura den oinarritzko giza eskubide horrekin negozioa egitea, finean.

Osasunako gastu publikoa (BPGaren %). EB, 2001



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, OCDEren, Eustaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta

Azkenik, EAEko eta EBko 2001eko gastu publikoak konparatzean, EAEkoa zerrendako azkena dela ikusten dugu, osasuneko gastu publikoa BPGaren %4,18koa izanik. Pisu txikienak dituzten estatuetarik hurrengoa Luxenburg litzateke (BPGaren %4,92), eta hurrengoa, Irlanda (%4,94). Pisurik handienekoa Alemania delarik (BPGaren %8,01), horko osasun-gastu publikoaren pisua 1,9 bider da EAEkoa.

7. OSO ZUZKIDURA MURRITZA ETXEBIZITZARAKO

Eusko Jaurlaritzak 142,9 milioi euroko zuzkidura aurreikusi du etxebizitzarako, aurrekontuaren %2,1 baino ez, hain zuzen ere. Horrek BPGaren %0,28 adierazten du, eta oso igoera txikia erakusten du 2003 eta 2002rekiko (BPGaren %0,27).

2004rako zuzkidura erabat askieza da euskal biztanleriak etxebizitza duina lortzeko dituen oztopoak ikusita.

ELAk etxebizitzari buruz argitaratutako txosteneko zifren arabera, 2000. urtean, alokatzeko nahiz erosteko eskaintzan zeudenak baino 69.400 etxebizitza gehiago behar ziren. Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa etxebizitza behar zuten biztanleek ordain zezaketena baino 1,6 bider handiagoa zen, eta erabilitako etxebizitzaren batez besteko prezioa ordain zitekeen zenbatekoaren bikoitza. Etxez aldatu behar zuten biztanleek euren diru-sarreraren %29,4 bideratu behar zuten etxebizitza ordaintzeko, eta lehenengoz etxebizitza eskuratu behar zutenek, %49. Alokairuaren batez besteko prezioa ere etxetz aldatu beharrean zeuden biztanleek ordain zezaketena baino 260 euro garestiagoa zen, eta lehenengoz etxea behar zutenek ordain zezaketena baino 200 euro garestiagoa. Langabeziaren eta, batez ere, behin-behinekotasunaren portzentaia handiek larriagotu egiten dute egoera, eta, ondorioz, gazteen emantzipazioa eta, horren eraginez, seme-alabak izateko adina atzeratu egiten dira. Eta, datu guztiek erakusten dutenez, 2000tik hona etxebizitza-egoera larriagotu egin da.

ELAk, etxebizitza-politikaren inguruan egindako proposamenak gastu publikoan oinarritzen dira, zerga-arinketetan barik, gastuaren bideari eraginkorragoa eta gizartearentzako egokiagoa deritzogulako. Gure proposamen aipagarrienak babespeko etxebizitzaren kopurua handiagotzea (urtean 20.000 eraiki arte), alokatzeko etxebizitzak sustatzea, etxebizitzaren prezioan eragina duten alderdiak administratiboki kontrolatzea (lurraren balioetik hasita) eta hutsik dauden etxebizitzak erabiltzea dira, besteak beste. Proposamenok gauzatzeko, aurrekontu-zuzkidura handiagotu egin behar da. Dauden premia itzelak ikusita, etxebizitza-politikarako aurrekontu-zuzkidurak oso urriak dira, eta ez dute erantzun egokia ematerik ahalbidetzen.

Aurrekontuan etxebizitzarako gastu handiagoa aurreikusi behar den era berean, aurrekontuak ahalbidetzen duen guztia gastatu behar da. Izan ere, orain artean ez da gastatu onartutako aurrekontuan jasotako zuzkidura osoa. Zehazki, 2002ko aurrekontu eguneratuan (doiketak egin osteko behin betiko aurrekontuan) 126 milioi euroko zuzkidura zegoen aurreikusita, baina egindako gastua 119 milioi eurokoa izan zen. Horren arabera, etxebizitzarako bideratu behar ziren 7 milioi euro geratu ziren gastatzeko. Ez dakigu 2003an zer gertatuko den, baina eskura daukagun azken informazioak antzeko zerbait gertatuko dela pentsarazten digu. 2003an, etxebizitza-

rako onartutako aurrekontua 131,9 milioi eurokoa izan zen, eta gastatuko denaren aurreikuspena 128,4 milioi eurokoa besterik ez da; horren arabera, 2003ko ekitaldia aurrekontuan adierazitakoa baino 3,5 milioi euro gutxiagoko etxebizitza-gastuarekin itxiko dela pentsa daiteke.

8. GARRAIOAK ETA HERRILANAK. EUSKAL «Y» TRENBIDE-SARE EZEGOKIA

Euskal gobernuak 187.856 euroko zuzkidura bideratuko du Garraio eta Herrilanetarako, hau da, BPGaren %0,37. Sail horrek jaitziera txikiak izan zituen azken bi urteetan, 2002an BPGaren %0,41eko pisua eta 2003an BPGaren %39ekoa baitzuen.

Era berean, 2004an, 1.958 euroko gastua aurreikusten du trenbide-sare berrirako, eta horren helburua Europako sarean sartzea dela dio. ELAk trenbide-sare berria eratu beharra defendatzen du, gaur egungoak ez duelako balio Euska Herriak pertsonen eta merkantzien garraioan dituen beharrak asetzeko. Ondorioz, gure errepide-tan pilaketa, arriskugarritasun eta kutsadura maila handiak nozitzen dira.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzak abiadura handiko Y proiektuan aurreikusitako ikusmoldearen barruan baino ez du euskal trenbide-sarea ulertzen, nahiz eta, gure iritziz, ikusmolde horrek ez dion Euskal Herriak behar duen irtenbideari erantzuten, besteak beste, abiadura handiko trenak ingurumenarentzako inpaktu larriak eta kostu ekonomiko itzelak ekartzeaz gain, merkantzien garraioaren arazoa eta pertsonen garraioaren arazoaren zati handi bat zuzentzen ez dituelako, hiriburuak bakarrik lotzen baititu, gainerako biztanle-guneak bazterrean utziz. Horrez gain, Abiadura Handiko Trena garraiobide garestia eta, beraz, elitista da.

Gure ustez, garraio-arazoa zuzentzeko, merkantzien trafikoa ahalbidetzen duen, biztanleria osoaren garraio-beharrei erantzuten dien eta gizarte, ingurumen zein ekonomia-inpaktuak ahalik eta gehien murrizten dituen trenbide-sistema behar dugu. Eta, horrekin batera, garraio publikoa indartzeko eta automobil pribatuen erabilera murrizteko politika sustatu behar da.

9. PERTSONA ASKO POBREZIAN UZTEN DITUEN OINARRIZKO ERRENTA

2004rako aurrekontu-proiektuak jasotzen duen arabera, bakarrik bizi diren pertsonen oinarrizko errenta Lanbidearteko Gutzinezko Soldataren (LGS) %83koa izango da, 2003rako aurreikusitako %81aren aldean. Proposamen horretan, pertsona bat baino gehiagoko bizikidetzak unitateei aplikatu beharreko eskala ez da aldatu, oinarrizko errentaren gehienezko muga LGSaren %125ean mantenduta. Horrela, 2004rako proiektuak aurrera egiten du EAJk, EAK eta Ezker Batuak oinarrizko errenta apurka-apurka LGSaren %86ra hurbiltzeko sinatutako akordioaren helbururantz, baina eskala aldatu gabe. Bere garaian esan genuen bezala, ELAk askiez deritza akordio horri.

Oinarrizko errentarako finkatutako zenbatekoak pobrezia atalasearen azpiko diru-sarrerekin uzten ditu pertsona eta familia asko. Gainera, Foru Aldundiek osagarriak finkatu dituztenez, praktikan, Jaurlearitzak onartutako eboluzioak ez dio hobekuntzarik ekarriko pertsonen egoerari.

ELAk berriro aldarrikatzen du bakarrik bizi diren pertsonen oinarrizko errenta LGSaren %100ra igo behar dela, eta bizikidetzak unitateko kide gehigarri bakoitzeko, %50 erantsi behar zaiola zenbateko horri.

10. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA URRIAK IZOZTU EGITEN DIRA (GLL)

Politika neoliberalen ondorioak adibide bakar batez adierazi beharko bagenitu, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) begiratu besterik ez genuke. 2004ko aurrekontuetan, Jaurlearitzak 20 milioi euroko zuzkidura finkatu du, hau da, 2003rako zehaztutako zuzkidura bera: horrek, praktikan, murrizketa adierazten du.

GLLak pertsonen eta familien premia-egoera batzuk arintzeko laguntzak dira. Hala ere, oinarrizko errenta ez bezala, ez dira esku-bidezkoak, eta aurrekontu-zuzkiduraren arabera esleitzen dira.

Azken urteetako errealitateak erakusten duenez, aurrekontu-zuzkidura horiek txikiegiak direnez, urteko azken hilabeteetan udalek betetzeke utzi behar izaten dituzte behar horiek, edo gastuen zati bat bakarrik finantzatu. Era berean, GLLak hainbat mota-tako beharretara bideratu beharko lirakeen arren, aurrekontuaren

%80 baino gehiago etxebizitza-gastuak estaltzera zuzentzen dira, eta, beraz, beste hainbat premia betetzeke geratzen dira.

Gauzak horrela, eta lehen aipatu dugun superabit-egoera aintzat hartuta, aurrekontu-proiektuan GLLetara 20 milioi euro bakarrik bideratzeak agerian uzten du gure gizartean egoerarik latzena nozitzen duten pertsonen oinarrizko beharrezanekiko sentiberatasun falta handia. Aurrekontu-sail horiek mugarik ezarri gabe zabaldu beharko lirateke, beharrezan guztiak estaltzeraino, eta, era berean, eskubide bihurtu beharko lirateke, beste gizarte-prestazio batzuk bezala.

11. ENERGIA POLITIKA: ERAKUNDE PRIBATUENTZAKO ZUZKIDURA

Energia Politikarako zuzkidura ia 3 milioi eurokoa da (BPGaren %0,01). Sail horrek ere izan du nolabaiteko jaitsiera aurreko ekitaldian aldean, 2002an BPGaren %0,04 eta 2003an BPGaren %0,02 izan baitzen.

Energia Politikaren barruan, 2,6 milioi euro (osokoaren %88,2) kapital-eragiketen subentzio eta transferentzietara bideratzen dira; beraz, horiexei dagokie arlo honetako gastuaren gehiena. Transferentzia eta subentzio horietarik %9,1 erakunde publikoetara bideratzen da, %90,9 erakunde pribatuetara doalarik.

Autosufizientzia energetikoa lortzeko helburua jasotzen duen 3E-2010 Energia Estrategia da aurrekontu-proiektuak gauzatu nahi duena. Baina benetako autosufizientzia energia berriztagarrien bidez besterik ezin da lortu, energia horiek, kutsagarriak ez izateaz gain, mugagabeak direlako. Ezin da esan zentral termikoen ekoizpena autosufiziente denik, hori ekoizteko, beste herri batzuetatik inportatutako lehengaia behar duelako. Beraz, EAEn oso urrun gaude 3E-2010 Planak helburutzat adierazten duen autosufizientzia energetikoa lortzetik, eta, energia termikoan oinarrituz egiten ari diren proiektuak ikusita, urrun segituko dugu.

12. LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA INGURUMENA

Sail honek 103,3 milioi euroko zuzkidura du (BPGaren %0,2). Horrek nolabaiteko igoera erakusten du Sailak 2002an zuen pisua-
rekiko (BPGaren %0,19) eta jaitsiera nabarmena 2003an egokitu zi-

tzaionarekiko (BPGaren %0,25). Ez aurrekontu-zuzkidura ez egin-dako gehikuntzak ez dira nahikoak Lurraldearen Antolamenduak eta Ingurumenak erakusten duten joera aldatzeko.

13. EUSKARARENTZAKO GASTU PUBLIKOA

Euskararentzako gastu publikoa hiru programatan dago bilduta:

- 1) Hezkuntza-sistema euskalduntzeko programa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baitan.
- 2) Hizkuntza Politikako programa, Kultura Sailaren barruan
- 3) Administrazioa euskalduntzeko programa, Herri Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren barnean.

2004rako aurrekontu-proiektuan, hiru aurrekontu-sail horiek 88 milioi euro batzen dituzte, guztira, hau da, BPGaren %0,17. Arlo horren pisua mantendu egin da, 2002 eta 2003 ekitaldietan ere BPGaren %0,17koa izan zen eta.

Euskararentzako aurrekontu-sailak. 2002-2004

	2003/02 (%)	2004/03 (%)	2004
Hezkuntza sistemaren euskalduntzea	10,13	5,68	43.657,1
Hizkuntza politika	2,77	4,10	34.331,0
Administrazioaren euskalduntzea	4,48	7,01	9.972,1
GUZTIRA	6,48	5,20	87.960,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzak

14. ONDORIOAK

1. Eusko Jaurlaritzak 2004rako aurkeztutako aurrekontu-proiektuak gastuen hazkunde txikia (ekonomiaren hazkundearen azpikoa) islatzen du; beraz, gizarte-beharrizan garrantzitsu asko estaltzeke utziko dira aurrerantzean ere. Ildo horretan, proiektuaren arabera, 2004rako:
 - Aurreikusitako gastuak %5,49ko igoera nominala izan du bakarrik, BPGaren %5,68ko gehikuntzaren aldean.

-
- Aurkeztutako aurrekontuak ez du defizitik, baina, ziurtasun handiz aurreikus daitekeenez, Jaurlaritzak superabitaz itxiko du 2004ko ekitaldia.
 - 394,3 milioi euroko zorra jaulkitzeko aukera aipatzen da, baina esperientziak iradokitzen duenez, zentzuzkoagoa da ezertxo ere ez dela jaulkiko pentsatzea.
 - Hortaz, aurrekontu atzerakorrak dira, eta gastuaren hazkunde urria da, kontserbadurismo neoliberalaren ildo berekoa, nahiz eta gizarte-premia garrantzitsuak egon eta ekonomiaren egoera aurreko urteetako bezain onuragarria ez izan.
2. Beraz, 2004rako, eutsi egiten zaie azken urteetako joerei, alegia:
- Eusko Jaurlaritzaren gastuak ekonomian duen pisua jaistea.
 - Gizarte-gastua handiagotu beharrean, superabita nahiago izatea.
 - Zor publikoa modu harrigarrian murriztea.
3. Eusko Jaurlaritzak gizarte-politiketan egiten duen gastua urria edo oso urria da, begiratzen zaion aurrekontu-sailaren arabera. Sortzen den aberastasunetik gizarte-gastuetara zuzentzen den zatia gero eta txikiagoa da, diskurtso ofizialak esaten duenaren kontra. Ildo horretan, nabarmendu behar dugu:
- Hezkuntzako gastu publikoak aberastasunean duen pisua murrizten segitzen duela. Murrizketa hori Haur eta Lehen Hezkuntzetan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan nabaritzen da gehien. Harrigarria bada ere, aurrekontu-zuzkiduraren zentzuzko gehikuntzaren ordeztu, 0-3 urtekoen tartean estaldura askieza eskaintzea hautatzen ari dira (batez ere, 2 urte baino gutxiagokoen kasuan).
 - Osasuneko gastu publikoa ekonomia baino gutxiago hazten ari da, Jaurlaritzak, datu errealei jaramonik egin gabe, helarazten dituen mezu ofizialek diotenaren kontra. Izan

ere, sistema publikoaren estaldurak hobetu ordez, sanitate pribatua eta mota guztietako zerbitzuen azpikontratazioa (osasun arlokoak ez ezik) sustatzen ari da.

- Etxebizitzarako aurrekontu-zuzkidurak oso urriak dira, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoaren %2,1 besterik ez. Aurrekontu murrizt horiekin ezinezkoa da pertsona guztiek -batez ere gazteek- etxebizitza duina edukitzeko eskubidea lortzeko politika eraginkorrik egitea.
- Oinarrizko errenta pobreziaren atalasearen azpitik dago oraindik ere. Oinarrizko errentarako zein Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako aurrekontu-sailak oso txikiak dira. Guztiz arbuiagarri deritzogu horri, prestazio horiek gure gizartean egoera ekonomikorik txarrean nozitzen duten pertsonentzat direla kontuan hartuta.
- Aurrekontuetan, sail sinboliko bat jaso dute euskal Y deritzona garatzeko. Hala ere, Garraio Sailak temati segitzen du ez pertsonen ez merkantzien arloko beharrei erantzuten ez dien eta ingurumen, ekonomia zein gizarte-ondorio larriak ekarriko dituen proiektu horren alde.
- Eredu ekonomiko neoliberalak energia-politikaren ataleko aurrekontu-sailetan ere du isla: sail horiek enpresien proiektuak garatzeko ematen zaizkien dirulaguntzak besterik ez dira, eta oso garrantzi eskasa esleitzen zaie lurraldearen antolamenduari eta ingurumenaren babesari, euskal eremuko ekintza publikoan nabarmentasun handiagoa izan behar duten gaiak diren arren.
- Amaitzeko, euskara sustatzeko aurrekontu-sailak handiagotu behar direla adierazi nahi dugu.

Finean, aurrean dauzkagun horiek eduki neoliberalako aurrekontuak dira. EAEko gizarte-gastua Europako Batasuneko batez bestekoa baino askoz txikiagoa da (BPGaren %20 baino txikiagoa EAEn eta %27 baino gehiagokoa EBn). Eusko Jaurlaritzak nabarmenki handiagotu beharko lituzke bere eskumenekoa den gizarte-gastua estaltzeko aurrekontu-sailak. Ekonomiari zein aurrekontuari begiratuta, egon badago gure proposamenekin bat datorren politika garatzeko behar besteko marjina, baina Jaurlaritzak superabita

dakarten politika murrizgarrien aldeko apostua egiten du. Izan ere, Europako Batasuna aurrekontuan nolabaiteko defizit-maila edukitzea oztopo gaindiezintzat hartzen duen ikusmoldea zalantzan jartzen ari delarik, Eusko Jaurlaritzak lehentasuna ematen dio superabita lortzeari, pertsonen beharrianak estaltzeko aukera alde batera utzita.

Nafarroako Gobernuak 2004.rako aurkeztutako aurrekontu proiektuaren balorazioa

SARRERA

Aurrekontuei buruzko honako aurreproiektu hau aurreko bi ekitaldietan onartu ez ziren proiektuen ostean dator. Izan ere, 2002 eta 2003 urtealdietan, Nafarroako gizarteak 2001erako onartutako aurrekontu berak izan ditu. Itxura guztien arabera, Batasuna legez kanpo utzi zenetik Nafarroako Parlamentuak duen osaera berriaren arabera, 2004rako aurkeztutako aurrekontu-proiektua onartu egingo da, Gobernuko alderdiek oposiziokoek baino aulki gehiago dituzte eta (27 eta 23, hurrenez hurren).

Aurrekontu proiektuaren egiturari dagokionez, gobernu berriak hainbat birmoldaketa egin ditu gobernuko sailetan, eta horien eraginez:

- Dagoeneko, Kultura ez da Hezkuntza eta Kultura Sailaren atal izango.
- Aurrerantzean, Turismoa ez Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Sailaren atal.
- Ondorioz, "Kultura eta Turismoa - Vianako Printzea Erakundea" deritzon Sail berria eratuko da.

Hori dela eta, hiru sail horiek ezin dira aurreko ekitaldiekin homogeneousunez erkatu, Gobernuak ez duelako ematen horretarako behar den informazioa. Aitzitik: sail berrien izen berriak 2003ko ekitaldirako ere erabiltzen dira, 2003an (gobernu berria eratu zen arte) lehengo konfigurazioa zutela aintzat hartu gabe.

2004ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan diru-hornidurek izan duten bilakaera aztertzean, honako informazio hau erabili dugu, ohi dugun bezala:

- a) 2004rako aurrekontu-proiektua.


-
- b) 2003rako aurrekontu bateratua, ez ekitaldi horretan egindako gastua ez horren gaineko aurreikuspena ez dakizkigulako.
 - c) 2002an eta aurreko ekitaldietan buruturiko gastua.

1. AURREKONTU PROIEKTUA

Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuak 2.789 milioi euroko gastua aurreikusi du 2004rako, hau da, urte horretarako estimatutako Balio Erantsi Gordinaren (BEG) %21,4. Ildo horretan, 2003ko gastua BEGaren %22,3koa izan zen; beraz, gastu publikoak Nafarroako ekonomian duen pisua puntu bat jaitsi da, 2003koaren aldean. 2004ko gastu publikoa 2003koaren mailan mantentzeko, 2004an gastatuko direnak baino 124,1 milioi euro gehiago gastatu beharko lirateke. Horren arabera, aurreko ekitaldiko pisuari eusteko gastatu beharko liratekeenak baino 219,2€ gutxiago gastatuko dira, nafar bakoitzeko. Horrek zuzeneko lotura du Nafarroako gizarte osoak zerga bidezko bilketan jasango duen murrizketarekin. Argi dago: zergen ondoriozko bilketa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta gutxiago gastatuko du Nafarroako Gobernuak, batez beste, pertsona bakoitzeko. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar zergak eta gastuak murrizteak nori dakarkion onura eta nori kaltea.

Gastuaren pisuak BEGarekiko agertzen duen urripena ez da 2004an bakarrik ageri, urtez urte errepikatzen den konstantea da eta. 1998-2004 epealdia erreferentziazat hartuta, 1998ko gastu publikoa BEGaren %24,7koa zela ikus dezakegu. Horren arabera, 6 urteren buruan, gastu publikoak Nafarroako ekonomian duen pisua 3,3 puntu txikiagoa da. Bestela esateko: Nafarroako gobernuak 1998an gastu publikoari ekonomian zegokion pisua mantendu izan balu, 2004an, gastatzea espero duena baino 434,2 milioi euro gehiago gastatuko lituzke, hau da, 781€ gehiago pertsonako.

Gastu publikora zuzendutako BEGaren ehuneako Nafarroa, 1998-2004



Iturriak: Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Proiektuak, Nafarroako Estatistika Institutua, ELAko Azterketa Bulegoa

Ondoko taulan 2004ko aurrekontu-proiektuari buruzko informazioz garrantzitsuena azaltzen da laburturik; bertan islatzen dira:

- Sail bakoitzarentzat aurreikusten den zenbatekoa.
- Diru-hornidura horietako bakoitzari, aurreikusitako gastu osoarekiko, dagokion ehuneko.
- 2004an sail bakoitzak BEGan duen pisua.
- 2003an sail bakoitzak BEGan izandako pisua.
- 2004an, sortutako aberastasunean (BEG) sail bakoitzak 2003ko pisu bera balu, goitik edo behetik gastatuko lukeena.

Nafarroako aurrekontu proiektua.
2004 eta 2003ko ekitaldiarekiko diferentzia

SAILAK	2004 Proiektua	OsokoarenBEG		BEG	2003-2004 diferentzia eurotan
		% 2004	% 2004	% 2003	
Osasuna	639.486.599	22,9	4,9	4,9	4.871.997,4
Ekonomia eta Ogasuna	548.865.798	19,7	4,2	4,4	-23.937.176,7
Hezkuntza *	450.724.693	16,2	3,5	3,5	-10.656.125,3
Herri Administrazioa	239.445.715	8,6	1,8	2,1	-32.611.861,7
Gizarte Ongizatea, Kirola eta Gazteria	184.588.883	6,6	1,4	1,4	-4.681.848,4
Industria , Teknologia, Merkataritza eta Lana *	158.873.925	5,7	1,2	1,4	-23.851.831,5
Presidentzia, Justizia eta Barne Saila	149.305.885	5,4	1,1	1,3	-22.530.790,4
Herrilanak eta Garraioak	136.471.834	4,9	1,0	1,2	-20.552.183,1
Nekazaritza, Abelazkuntza eta Janariak	108.868.453	3,9	0,8	0,9	-8.077.541,3
Ingurumen, Lurralde Antol., Etxebizitza	100.011.682	3,6	0,8	0,7	9.002.369,5
Kultura eta Turismoa Vianako Printzea Erak. *	59.455.540	2,1	0,5	0,1	43.221.145,6
Nafarroako Legebiltzarra	12.545.984	0,4	0,1	0,1	-2.970.133,4
Nafarroako Kontseilua	588.006	0,0	0,0	0,0	137.020,7
GUZTIRA	2.789.232.997	100	21,4	22,3	-124.068.080,7

*Iturria: Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Proiektua
(*): Egitura-aldaketak izan dituzten Sailak*

Aurrekontu-hornidura handienekoa Osasun Saila litzateke, 639,5 milioi euro eta Gobernuaren gastu osoaren %22,9arekin; ondoren, Ekonomia eta Ogasun saila letorke, 548,9 milioi euro eta %19,7arekin (Sail horretan Estatuari Aportazioa ere sartuta dago); eta horren ostean, Hezkuntza legoke, 450,7 milioi euroko zenbatekoarekin (%16,2).

Gobernuko sailen egituraren egindako aldaketek izan dezaketen eragina alde batera utzita, 2004an, Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailak izan du BEGean duten pisuan igoerarik handiena, (9 milioi euro gehiagori dagokiona), eta bigarrena Osasun Saila izan da (4,9 milioi euro gehiago). Jaitsiera erlatiborik handienak izan dituztenak Toki Administrazioa (32,6 milioi eurokoa), Ekonomia eta Ogasuna (23,9 milioi euro) eta Presidentzia, Justizia eta Barne Saila (22,5 milioi euro) izan dira.

Biltzea aurreikusten den kopurua aurreikusten diren gastuen parekoa da, 2.789,2 milioi euro, hain zuzen ere. Horrek adierazten duenez, 2003an bezala, ekitaldia zero defizitarekin amaitzea da asmoa, kontu publikoen oreka ongizate-estatuaren aurretik jarritz, eta oinarritzko beharrianak (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, oinarritzko errenta eta abar) ase gabe utziz. Ez da ahaztu behar Europako Batasuneko estatu gehienak birplanteatzen eta bete gabe uzten ari direla Neoliberalismoari eusten dion politika hori.

2003an, alderdi horretan benetan zer gertatuko den jakiten lagundu dezakeen informaziorik ez daukagu oraindik, kontuen itxierari buruz eskura daukagun azken informazioa 2002koa da eta. Horren arabera, ekitaldia ixtean, sarrerak 2.597,5 milioi eurokoak ziren guztira, eta gastuak, 2.565,8 milioi eurokoak, emaitzan 31,7 milioi euroko superabita ageri zelarik, Nafarroako gobernuak azken urteetan egin izan duenaren ildo berean, ekitaldia superabiltaz amaituz.

Beraz, gastu publikoak BEGan duen pisua, 2003koaren aldean, jaitsi den era berean, sarreraren pisua ere urriagotu egin da. Zehazki, sarreraren pisua 2003an BEGaren %22,3 izatetik 2004an BEGaren %21,4 izatera igaroko da, eta 124,1 milioi euro utziko dira bildu gabe.

Hitzartutako zergen presioa aztertzean, zuzeneko eta zeharkako zerga guztien batura 2002an BEGaren %20,4 izatetik, 2003an %18,2, eta 2004an %19,7 izatera igaroko dela ikus dezakegu. Antza denez, 2003ko zifra beste bi ekitaldien joeratik kanpo dago; beraz, ez dirudi oso fidagarria. Horregatik, 2002ko eta 2004ko informazioei begiratuko diegu, batez ere. Horien arabera, zuzeneko eta zeharkako zergen presioa 5 hamarren jaitsiko da eta, ondorioz, 77,4 milioi euro gutxiago bilduko dira.

2004an, zuzeneko zergen presioa BEGaren %9,2koa izango da, eta zeharkakoena, %10,5koa; hortaz, zuzeneko zergek (hau da, pertsonen diru-sarreraren arabera) eragiten duten presioa pertsona guztientzat berdina diren zeharkako zergena baino 1,3 puntu txikiagoa da. Horrek agerian uzten du Nafarroako zerga sistemak hartu duen atzerako bidea. Zuzeneko zergen presioa hiru hamarren txikiago bihurtuko da 2002tik 2004ra, eta zeharkako zergena, lau hamarren txikiagoa.

**Zuzeneko eta zeharkako zergen presioa
Nafarroa (BEGaren %a), 2003-2004**


	2004 Proiektua	2003 Bateratua	2002 Gauzatua	2002-2004 Dif. Eurotan
ZUZENKO ZERGAK	9,2	8,7	9,5	-31.759.832,5
ZEHARKAKO ZERGAK	10,5	9,5	10,9	-45.672.303,9
HITZARTUAK, GUZTIRA	19,8	18,2	20,3	-77.432.136,5

*Iturria: Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Proiektua,
ELAko Azterketa Bulegoa*

a) Zor publikoa

Esan dugunez, espero diren sarrerak aurreikusi den gastuaren bestekoak direnez, ekitaldia osorik fintzatzatzeko, 2004rako Aurrekontu Proiektuaren memorian, printzipioz, ez dela kapital-merkatura jo beharko azaltzen da. Hots, 2004rako, ez da aurreikusi zor publikoa jaulkitzerik.

Era berean, aurrekontu-proiektutik ondoriozta daitekeen arabera, 2004an ez da espero zor bizia amortizatzerik; beraz, zor bizia aurreko ekitaldiko bera izango litzateke (641,4 milioi euro). Era horretan, zor biziaren pisua 2003an BEGaren %5,21ekoa izatetik 2004an %4,91koa izatera pasatuko litzateke; hots, zor biziak ekonomian duen pisua 3 hamarren txikiagoa litzateke, 2003koaren aldean. Berez, hori, ez da egitate isolatua, ondoko grafikoan ikus daitekeenez, zor biziak Nafarroako ekonomian duen pisua etengabe ari baita jaisten. 1995-2004 aldia erreferentziatzat hartuta, 1995ean zor bizia BEGaren %11,6 izatetik 2004an BEGaren %4,9 izatera igaroko da. Bestela esateko: zor biziak BEGan duen pisua aldi horren hasierakoaren erdia baino txikiagoa izango da.



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua


b) Onura fiskalak

Onura fiskalek kenketa, salbuespen, hobari eta bestelako kontzeptuengatik biltzeke geratzen den zenbatekoa biltzen dute, bai zuzeneko zergeri (etxebizitza erosteagatiko kenketak, gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen zioz zerga-oinarrian egiten diren murrizketak, lan-etekinen ziozko kenketak, inbertsioengatiko hobariak, eta abar), bai zeharkakoei dagokienez (BEZaren ziozko salbuespenak, BEZ tasa murrizak eta oso murrizak,...).

Aurkeztutako proiektuaren arabera, onura fiskal horiek hartzen duten zenbatekoa 1.225,3 milioi eurokoa izango da 2004an, hau da, BEGaren %9,4.

Onura horien zenbatekoa Nafarroako gobernuak 2004an bilduko duen guztiaren %43,9aren bestekoa da. Edo, bestela esateko, ondorengo grafikoak erakusten duenez, onura fiskalak beroriek ez baleude bildu beharko litzatekeenaren %32 dira.

Onura fiskalek bilketan duten pisua



Iturriak: Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Proiektua, ELAko Azterketa Bulegoa.

Onura fiskaletatik %48,17 zuzeneko zergei dagokie, eta %51,83, zeharkako zergei.

2004an, BEZa onura fiskal guztien %47 izango da; onura horien-gatik ez balitz, BEZak eragindako bilketa benetako bilketa baino %66,4 handiagoa litzateke. Onura fiskal handiena dakarren bigarren zerga PFEZ da, osokoaren %29,07ko onura dakarrelarik; onurak aplikatu ezean, bilketa benetan izango dena baino %43,4 handiagoa litzateke. Eta onura fiskal handieneko hirugarren zerga Sozietateen gainekoa da, osokoaren %15,54ko onura eragiten duena; zerga horrekin loturiko onura fiskalak ez baleude, bilketa %60,2 handiagoa litzateke.

Kontzeptu horietan biltzeke geratzen den zenbatekoaren ideia argia egiteko, aipa daiteke Osasun Sailaren eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren hornidura (hau da, bi sail handien zenbatekoa) onura fiskalen zenbatekoa baino 36,9 milioi txikiagoa dela; edo 10 sail txikien (Nafarroako Kontseilua, Nafarroako Legebiltzarra, Kultura eta Turismo Saila, Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Exebizitza Saila; Nekazaritza, Abelazkuntza eta Janari Saila, Herrilan eta Garraio Saila, Presidentzia, Justizia eta Barne Saila, Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan Saila eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria saila) zuzkiduren batura onura fiskalen zenbatekoa baino 75,1 milioi euro gutxiagokoa dela.

Logikaz, onura fiskal horiek sarreretan eragiten duten murrizketak eragotzi egiten du gastu handiagoa (gizarte-gastua, esaterako) egin ahal izaterik. Horrez gain, horrelako onuren eraginkortasuna eta erabilera oso eztabaidagarriak dira. Har dezagun adibidez, gizarte-politikarekin lotutako aurrekontu-sail bat: ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeagatik kenketak, alegia (96,2 milioi euro); sail horren zenbatekoaren gehiena etxebizitzaren erosketara bideratzen da. Atal horretako onura fiskalen zenbatekoa 1,8 bider da etxe-

bizitzak eraikitzeke eta birgaitzeko egiten den gastu publikoa (53,2 milioi euro). Gizarte-politika gastuaren bidez garatu behar da, kerketen bidez barik. Bestalde, kasu askotan (Sozietateen gaineko Zerga,...) hobariak ez daukate inolako zerikusirik gizarte-gastuarekin, eta egitate horrek are eztabaidagarriago bihurtzen ditu hobariok.

c) Zergen Ikuskapena

Nafarroako Gobernuak zerga-iruzurraren aurka egiten duen ahalegin urria sarrera publikoak murrizten dituen beste alderdi bat da. 2004rako aurrekontu-proiektuak berriro egiaztatzen du hori. Izan ere, zergak ikuskatzeko, 2 milioi euro baino gutxiago erabiliko dira 2004an (BEGaren %0,015), aurreko bi ekitaldietako pisu bera esleitzuz (2003an BEGaren %0,014, eta 2002an, %0,013).

Aurrekontu-sail horren gehikuntza arinak 2 pertsona gehiago ekarriko ditu ikuskapen-lanak egiten dituen plantillara. Hala eta guztiz ere, 2004an, Foru Erkidego osoan zeregin horretan jardungo direnen kopurua irriagarria da: 33 pertsona, hain zuzen ere. Bestalde, ikuskatu diren zergadunen kopurua iazko bera izango da (350 Nafarroa osoan, kopuru irriagarria, hori ere); beraz, sail horren handikuntza txikiak, praktikan, ez du inolako emaitzarik ekarriko.

Ez dugu ahaztu behar Nafarroako Ogasun Sailak emandako azken informazioaren arabera, lan-errentek PFEZn batez beste aitortutako errenta 18.756,3 eurokoa izan zela 2000. urtean, profesionalen errentek 10.222,3 euro aitortu zituzten (lanaren batez besteko errenta baino 8.534 euro gutxiago) eta enpresarienek 8.587,6 euro (10.168,7 euro gutxiago). Agidanez, datuok lotura handia dute Nafarroako Gobernuak iruzurraren kontra egiten duen ahalegin eskasarekin, errenta handien iruzurra baimentzeak sarrera finantzarioak eta gizarte-gastua murriztea dakar eta.


3. OSASUN SAILA

Goian esan dugunez, Osasun Saila da aurrekontu-zuzkidurarik handiena duena: 639,5 milioi euro, aurrekontu osoaren %22,93, hain zuzen. BEGan dagokion pisua %4,90ekoa izango da 2004an, 2003ko %4,86aren aldean. Horren arabera, 4,9 milioi euroko hazkundera izango du aurreko urtealdiarekiko. Hala ere, 2002an sail horrek BEGan zuen pisua %5,12koa zenez, 2002tik 2004ra, 0,22 puntuko

jaitsiera izango du BEGan (28,3 milioi euroko jaitsiera esan nahi du horrek).

Ondoko grafikoak erakusten duenez, Osasun Sailaren pisua murrizteko joera hori 1998tik errepikatzen ari da. Urte horretako pisua BEGaren %5,22koa zela kontuan hartuta, ordutik hona 0,32 puntuko jaitsiera izan du guztira (hau da, 41,8 milioi eurokoa).

Osasun sailaren pisua BEGan. Nafarroa 1998-2004



Iturriak: Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Proiektuak, Nafarroako Estatistika Institutua, ELAko Azterketa Bulegoa.

Lan Osasunaren aurrekontu-sailera 5 milioi euro bideratuko dira, hots, BEGaren %0,0381; horrek nolabaiteko igoera erakusten du aurreko bi ekitaldien aldean (2002an, BEGaren %0,0302, eta 2003an, BEGaren %0,0329).

4. HEZKUNTZAK GASTU PUBLIKOA


Aurrekontuan 450,7 milioi euroko gastua esleitzen zaiolarik, Hezkuntza Saila hirugarren garrantzitsuena da, Ekonomia eta Ogasuna Sailaren atzetik, eta gastu osoaren %16,16 dagokio, hau da, BEGaren %3,45.

Hasieran esan bezala, 2004ko aurrekontu-proiektuak jasotzen dituen sail-aldaketak direla eta, emandako informazioak ez du aukerarik ematen Hezkuntza Sailak aurreko ekitaldiarekiko izan duen bilakaera homogenotasunez aztertzeke. Horregatik, sail horren garrantzia aintzat hartuta, beraren pisuaren bilakaera aztertu ahal izateko, 2003ko Aurrekontu Bateratuan Kulturari bakarrik

dagozkion hiru aurrekontu-sailak kendu egin ditugu, nahiz eta ondo dakigun Hezkuntza eta Kultura Zerbitzu Orokorren aurrekontu-sailaren zati txiki bat ere Kultura Sailari legokiokela. Kalkulu horren arabera, 2003ko Aurrekontu Bateratuan, Hezkuntza Sailari 435,3 milioi euro legozkioke. Kopuru horrek (atera ahal dugun hurbilena) erakusten duen arabera, Hezkuntza Sailaren pisua BEGaren %3,53koa izango zen, 2003n (2002koa bezalakoa). Kalkulu horrekin bat, 2004an 10,6 milioi euroko jaitsiera jazoko da.

Sail horretan 1998-2004 aldian gertatutakoa aztertzean, jaitsiera askoz handiagoa dela ikus dezakegu. Izan ere, Hezkuntzaren pisua, 1998an, BEGaren %3,75koa zen, eta, beraz, 0,29 puntuko jaitsiera izan du (38,2 milioi eurokoa, alegia).

Hezkuntza sailaren pisua BEGan. Nafarroa 1998-2004



Iturriak: Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-proiektuak, Nafarroako Estatistika Insitutua, ELAko Azterketa Bulegoa.

Hezkuntza Sailaren barruan, euskararen gastua biltzen duten hiru atal daude (ikusi taulan), nahiz eta atal horiek esparru gehiago ere hartzen dituzten. Hala eta guztiz, horixe da arlo hau aztertzeo daukagun informaziorik hurbilena.

Hiru atal horiek BEGan duten pisua 2003ko %0,049tik 2004ko %0,055era igoko da; hots, 787.959,5€ko igoera izango du, 2003koaren aldean. Atal horietako baten pisua, "Unibertsitate eta Hizkuntza Politikako Z.N.aren jarduerak" izenekoarena, 2003an BEGaren %0,0094koa izatetik 2004an %0,0073koa izatera igaroko da; beraz, 284.183,9€ gutxiago egokituko zaizkio orain. "Hizkuntza programazioa, ikerketa eta garapena" deritzon atala 2003an BEGaren %0,0259 izatetik 2004an %0,0258 izatera igaroko da; alegia, horri ere

13.309,1€ gutxiago egokituko zaizkio. BEGan dagokion pisua handitzen zaion bakarria hirugarren atala da, "Euskararen irakaskuntza sustatzea eta garatzea" deritzona (2003ko %0,0139tik 2004ko %0,0223ra, 1.085.462,5€ suposatzen dituena). Datu hori pozgarria da ELAren iritziz. Dena den, igoera horrek pertsonal-gastuetan izandako gehikuntzari erantzuten dio soilik (1.170.500,9€ko igoera, alegia), taulan ikus daitekeenez, gainerako alor guztietan murrizketa dagoelarik. Beraz, euskarari 2004an esleitutako aurrekontuaren igoerak ezkututzen duen benetako asmoa oso zalantzazkoa da.

Euskararentzako aurrekontu-hornidurak. Nafarroa 2004-2003

	2004 Proiektua	2003 Bateratua	04-03 Difer. eurotan
PERTSONAL GASTUAK	1.700.367	499.935	1.170.500,9
GASTU ARRUNTAK	480.959	454.115	-481.302,9
Euskara irakasleen trebakuntza	54.545	55.652	1.641.383,1
Euskara erabiltzeko programak	129.740	125.638	-3.419,9
Euskarazko hezkuntza-materiala sortzea	84.409	80.001	-381,7
EGA azterketak, tituluak, funtzionamendu-gastuak.	26.043	21.960	2.768,3
Euskara sustatzeko jarduerak	186.222	170.864	5.128,4
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	723.981	762.996	-808.676,6
Euskara sustatzeko beka eta laguntzak	195.024	181.518	2.638,5
Gau Eskolentzako dirulaguntza	528.957	539.697	-43.051,7
Erabili gabeko kreditu luzatuak		41.781	
Euskara irakaskuntza sust. eta garatzea	2.905.307	1.717.045	1.085.462,5
Uniberts. eta Hizkuntza Polit. Z.N. Jard.	949.083	1.163.602	-284.183,9
Hizk. programazioa, ikerketa eta garapena	3.365.974	3.188.394	-13.309,1
GUZTIRA	7.220.364	6.069.041	787.969,5

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Proiektua

5. INGURUMEN, LURRALDE ANTOLAMENDU ETA ETXEBIZITZA SAILA

Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailari 100 milioi euro zuzenduko zaizkio 2004an, hots, BEGaren %3,6. Sail horrek 2003an zuen pisuarekin (BEGaren %3,1) erkatuta, 9 milioi euroko igoera aurreikusi zaiola ondorioztatzen da. Ezin da 2002ko datuarekiko erkaketa homogeneorik egin, orduan Gizarte Ongizatea beraren atal zelako, eta Ingurumena, berez, ez zen ageri.

Sail horren atal bakoitzarekin zer gertatzen den aztertzean, Ingurumen, lurralde antolamendu eta etxebizitzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak izenekoak BEGaren %0,034ko pisua izango duela ikus daiteke (2003an BEGaren %0,029koa izan zen); beraz, aurrekontu-sail horrek 696.275,4 euroko igoera izango luke 2003koaren aldean. Lurralde eta hirigintza plangintzak deritzon atalaren pisua 2003an BEGaren %0,024koa izatetik BEGaren %0,026ra igaroko da 2004an, 2003koaren aldean 258.538,4 euroko igoera adierazten duena. Etxebizitzak eraiki eta birgaitzea izeneko atalak BEGaren duen pisua 2003ko %0,329tik 2004ko %0,407ra igaroko da, hots, 10,2 milioi euroko igoera izango du. Ingurumenaren kudeaketa deritzon atala 2003an BEGaren %0,316 izatetik 2004an BEGaren %0,299 izatera igaroko da, 2,2 milioi euroko jaitsiera adierazten duena. Ingurumenaren Kudeaketa atalaren pisuaren murrizketa datu aipagarrietako bat da.

Ingurumena, lurralde antolamendua eta etxebizitza

	2004 Proiektua	2003 Bateratua	04-03 Dif. Eurotan
I, L.A. eta Eko Zuzendaritza eta zerbitzu orok.	4.434.103	3.526.685	696.275,369
Lurralde eta hirigintza plangintzak	3.355.185	2.921.723	258.538,444
Etxebizitzak eraiki eta birgaitzea	53.165.196	40.498.428	10.242.127,116
Ingurumenaren kudeaketa	39.057.198	38.921.538	-2.194.572,480
GUZTIRA	100.011.682	85.868.374	9.002.368,449

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Proiektua

Etxebizitza Sailari arreta berezia egingo diogu. 2002ko ekitaldian, 33,2 milioi euroko gastua egin zen, eta babestutako 1.390 etxebizitza eraiki ziren, hau da, 2002-2004rako Etxebizitza Planean proiektatutakoaren %59 baino ez. 2004rako aurrekontu-proiektuak, 53,2 milioi euroko zenbatekoa aurreikusita, 2.500 etxebizitza eraikitzea aipatzen du helburutzat. 2002ko datuak ikusita, zaila dirudi

aurreikusitako horniduraz kopuru hori betetzea. Gainera, zenbateko hori Etxebizitza Planean 2004rako helburutzat ezarri zena (2.750) baino txikiagoa da, guztiz arbuiagarria, guk uste.

Era berean, ELAren iritziz, urtero, EAEn bezala, etxebizitzaren egoerari buruzko azterketa osoa (Etxebizitza Beharrizan eta Eskariei buruzko Oinarrizko Inkesta, Higiezinaren Eskaintza, eta abar) egin ahal izateko aurrekontu-hornidura behar da. Gure ustez, ez da logikoa Nafarroako Etxebizitza Plana prestatu arte itxaron behar izatea Nafarroako etxebizitzaren egoera aztertu ahal izateko. Gaur egun, Etxebizitza Sailak babesturiko merkatuaren bilakaeraren jarraipena baino ez du egiten, baina merkatu horrek, tamalez, Nafarroako gizartearen etxebizitza-beharrizanaren zati ñimiño bati baino ez dio erantzuten.

Gogoan izan behar dugu, Nafarroari buruz eskura dugu informazioaren arabera, 2000. urtean 17.374 etxebizitza behar zirela, eskaintza 8.769 etxebizitzakoa zelarik. Horrez gain, etxebizitzaz aldatu behar zuen nafar biztanleriak bere diru-sarreraren %28,15 gastatu behar zuen etxebizitza ordaintzeko, eta lehenengo etxebizitza behar zuen biztanleriak, bere diru-sarreraren %47. Batez besteko salmenta-prezioa etxez aldatu behar zuten pertsonen ordain zezaketena baino %50 handiagoa zen, eta lehenengo etxebizitza eskuratu behar zutenek ordain zezaketena baino %44,7 garestiagoa. Iturri batzuen arabera arazoaren eragilea etxebizitza erostearen aldeko kultura den arren, alokairuak ez du konponbiderik eskaintzen. Berez, informazio publiko berorretan oinarrituta, alokairu librea (480€ hilean, 2000ko laugarren hiruhilekoan) etxez aldatu behar zuten biztanleen ordainketa-ahalmena baino %22,8 garestiagoa zen, eta lehenengo etxebizitza behar zutenena baino %25,5 handiagoa.

6. GIZARTE-SAIL BATZUENTZAKO HORNIDURAK

Gizarte-gastura bideratzen diren aurrekontu-kopuruei buruz mintzatzean, gorabehera handiak sumatzen dira, kopuruak nork aipatzen dituen arabera, mundu guztiak ez dituelako gauza berak hartzen gizarte-gastutzat. Berez, oso zaila da gizarte-gastua zer den eta zer ez den zehaztea. Baina gizarte-sail edo kontzeptu zehatzak argiak dira, eta horietako batzuek zuzkidura-urripen nabariak erakusten dituzte 2004rako aurrekontu-proiektuan.

a) *Lanaren sustapena.*

Aurrekontu-sail horretara 24,8 milioi euro bideratuko dira, 2004rako aurrekontu-proiektuaren arabera; horrek BEGaren %0,19 adierazten du. Lanaren sustapenak 2003an izan duen pisuarekin (BEGaren %0,227) alderatuta, sail horretan 2004ko 4,9 milioi euro gutxiago gastatuko direla ateratzen da ondorioz.

Erreferentziazat 2002ko ekitaldia hartuta (BEGaren %0,217) jai-tsiera 3,5 milioi eurokoa da. Ez dugu ahaztu behar EPAk enpleguari buruz emandako azken informazioaren arabera (2003ko hirugarren hiruhilekoari buruzkoa) 14.300 pertsona daudela langabezia Foru Erkidegoan, eta horietarik, %59,4 emakumeei dagokiela. Gainera, soldatapeko biztanleriaren %23,7k aldi baterako kontratua dauka; atal horretako ehunekoak bereziki altuak dira emakumeen (%30,5) eta gazteen kasuan (%53,8).

b) *Komunitatearentzako arreta*

Programa honen barruan, oinarrizko arreta (gizarte-zerbitzuak) eta gizarte-bazterketaren kontrako borroka sartzen dira; horregatik, bereziki garrantzitsua deritzogu.

Programari 20,6 milioi euroko aurrekontu-hornidura esleitu zaio 2004rako, hau da, BEGaren %0,16. Beraz, 2003an (BEGaren %0,17) baino 1 milioi euro gutxiago eta 2002an (BEGaren %0,17) baino 1,3 milioi euro gutxiago egokituko zaizkio.

Programa horren barruan, 6 milioi euroko zenbatekoa azaltzen da "Bizirauteko baliabiderik ez duten nafar familientzako laguntzak" izenburupean, hots, Oinarrizko Errenta gisa; zenbateko hori BEGaren %0,046 da. 2003ko ekitaldiarekin (BEGaren %0,0456) erkatuta, 2004an 51.000 euroko hazkundera izango duela sumatzen da, eta 2002koarekin (BEGaren %0,0504) alderatuta, 585.000 euroko jai-tsiera. Beraz, oso urrun gaude Oinarrizko Errentaren zenbatekoak handitzearen alde egin genuen proposamenetik eta, beharrezana zehazteko, bizikidetzaren unitatea osatzen duten 18 urtetik gorako kopurua aintzat hartzen duen eskala erabiltzetik. Zehazki, honako eskala hau proposatzen dugu:

- 18 urtetik gorako pertsona bakarra duten unitateentzako oinarrizko errentaren zenbatekoa Lanbidearteko Gutxienezko Soldataren (LGS) bestekoa izatea.
- Unitatearen gutxienezko kide-kopuru hori gaitzen duen kide bakoitzeko, LGSaren %50 eranstea.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak Oinarrizko Errenta deritzona 2001ko maila berean mantentzea planteatzen du (Legebiltzarrean 2000n onartutakoaren ildoan), gure ustez guztiz onartezina dena.

c) Pentsio ez kontributiboak.

Dagoeneko, ELAk argi adierazi du Espainiako Gobernuak sustatu duen Toledoko Itunaren aurkako jarrera, itun horren helburua, besteak beste, etorkizuneko pentsioak murriztea da eta. Nafarroako Gobernuak, pentsioen arloan erabateko eskumenik ez badu ere, Aznarren gobernuaren ildo berean jarraitzen du eskumenak dauzkan esparruetan, hau da, pentsio ez kontributiboetan.


2004rako aurrekontu-proiektuak argi erakusten du esandakoa; izan ere, pentsio ez kontributiboen diru-hornidura 13.054 milioi eurokoa izango da, BEGaren %0,11, alegia. Horrek 1,4 milioi euro gutxiagoko zenbatekoa adierazten du, 2003an pentsio horietara bideratu zenaren aldean (BEGaren %0,12), eta 2,1 milioi euroko murrizketa, 2002ko zenbatekoaren aldean (BEGaren %0,12).

d) Haurrak eta Gazteak.

Haurrak eta Gazteak hartzen dituen programa Familiarenetik bereiz aurkezten da 2004ko aurrekontuetan; beraz, aurrerantzean, ez da Haurrak, Gazteak eta Familia Sailaren atal izango. Hori dela eta, aurreko ekitaldietako datuetan, banandu egin behar izan dugu programa hori, datu guztiak homogeneotasunez aztertu ahal izateko.

Nafarroako Gobernuak 7,9 milioi euro bideratuko ditu Haurrak eta Gazteak atalera, hots, BEGaren %0,06. Atal horren pisua BEGaren %0,05ekoa izan zen 2003an, eta BEGaren %0,07koa 2002an, eta kontu-sail horrek 2002an izan zuen pisua mantentzeko, 2004rako aurrekontuetan islatutakoa baino 1,1 milioi euro gehiago esleitu behar zitzaizkion.

Aurrekontu-sail horrek berebiziko garrantzia du adin txikikoak eta horien eskubideak babesteko; baina, antza denez, Nafarroako Gobernuak ez dio dagokion lehentasuna eman nahi.



Iturria: Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Proiektua, ELAko Azterketa Bulegoa.

7. ESTATUAREKIKO HITZARMENA

Nafarroako Gobernuak 421,2 milioi euroko hornidura aurreikusi du (BEGaren %3,23) Estatuarekiko Hitzarmena deritzon atalean. Horrek 12,6 milioi euroko jaitsiera adierazten du, atal horrek 2003an zuen pisuaren (BEGaren %3,32) eta 2002ko pisuaren (BEGaren %3,57) aldean.

8. ONDORIOAK

Aurreko ekitaldietakoekin konparatuz, 2004ko aurrekontu-proiektuak ez du berritasun handirik agertzen, gastuak ekonomian duen pisua murrizteko joera orokor berari eusten dio eta.

Itxuraz, aurtengo proiektua garrantzi handiagokoa da, bi urtez onartu ez den bitartean, aurten onartu egingo delako. Hala ere, praktikotasunari begira, aurrekontu-proiektuaren onarpenak

garrantzi erlatiboa du. Berez, aurrekontua onartu ez den bi ekitaldietako emaitza ez da izan 2001ean onartutako eta luzatutako proiektuaren isla; aitzitik, aurrekontuaren kudeaketa eroso ahalbidetuko duen maniobra-marjina handia dago.

Ondorengo taulak laburbildurik agertzen du, 1998-2004 aldirako, osoko gastu osoak, zor biziak eta, gure iritziz, funtsezko garrantzia duten bi sailek (Osasunak eta Hezkuntzak) BEGan duten pisua:

	2004	2003	2002	2001	2000	1999	1998	DIF.
GASTU OSOA	21,47	22,3	22,4	23,6	24,1	24,3	24,7	-3,33 ptu.
ZOR BIZIA	4,9	5,2	5,6	6,4	6,8	7,7	8,3	-3,38 ptu.
OSASUNA	4,9	4,9	5,1	5,1	5,2	5,3	5,2	-0,32 ptu.
HEZKUNTZA	3,4	3,5	3,5	3,7	3,8	3,8	3,7	-0,29 ptu.

Ikus daitekeenez, horietako guzti-guztietan, argia da murrizketarantzko joera. Ondorioz, Nafarroako gizartearen beharriari ematen zaien erantzun publikoa gero eta eskasagoa da.

Aurrekontu-politika oro (gastuak) zerga-politikarekin (bilketa) dago zuzenean loturik. Horren arabera, zergen bilketak nafar ekonomian duen pisua ere urritzen ari da. Eta, berez, zergak murriztea diru gehien duten kolektiboari suertatzen zaie onuragarri, eta gastua murriztea, beharriari gertatzen zaie kaltegarri.

Agiri honetan zehar aipatu dugunez, zor biziaren etengabeko jaitsierak, zerga-iruzurrarekiko permitibitateak eta, onura fiskalak direla bide, biltzeke uzten den diru-kopuru eskergak lagundu egiten dute bilketaren murrizketan.

Aurreko ekitaldian bezala, 2004rako aurrekontu-proiektuak sarrera eta gastu berberak aurreikusten ditu, horrela, oreka finantzarioa gizarte ongizatearen gaineratik jarri eta oinarritzko beharriari estaltzeke uzten dituelarik. Ikusmolde hori Egonkortasun Itunaren ondorioa da, nahiz eta Europako Batasuneko estatu gehienek itun hori zalantzan jarri eta betetzeke utzi duten. Horrek agerian jartzen ditu Nafarroako Gobernuaren ideologia neoliberalak eta horren ondorio besterik ez den beraren politika, gehien daukanarentzako onura eta gutxien daukanarentzako kaltea dakartzana.